

SEXU, KLASE ETA INDARKERIAREN  
ARTEKO HARREMANAK

DIÁLOGOS ENTRE EL SEXO,  
LA CLASE Y LA VIOLENCIA

DIALOGUES BETWEEN SEX,  
CLASS AND VIOLENCE

MARGARET  
HARRISON

### 01. ARETOA. BEGIRADA ALDERANTZIKATUA, SEXUEN ETA ESTEREOTIPOEN ARTEKO HIERARKIA.

Aktibismoa eta artea bateratuz, Margaret Harrisonek The London Women's Liberation Art Group sortu zuen 1970ean beste artista batzuekin batera. Harrisonek eta bere kideek, lehenik, artea kalera atera nahi zuten, eta, gero, hainbat performance egin zituzten, mugimendu feministak bultzatutako ekintzen barruan -esate baterako, Miss World Contest-aren aurkako protesta-, eta, horien bidez, pertsonen sexu-, genero- eta sexualitate-identitateak murrizten zituzten estereotipoak eta sexuen arteko hierarkiak salatu zituzten. Banakako lehen erakusketa handik urtebetera egin zuen: marrazki eta pinturen sail bat zen, eta, hor, zalantzan jarri zituen estereotipo horiek, emakumeak objektu bilakatzen eta gizonzkoen mendekotasuna erreproduzitzen zutela nabarmenduta. Erakusketak ikuspegi kritikoa ematen zuen kontsumoko gizartearen eta pop amerikarraren ikonografiak. Inaugurazioa egin eta 24 ordu igarotakoan, poliziak itxi egin zuen, "lizuna" zelakoan. Oso denbora laburrez zabalik egon arren, ordu horiek aski izan ziren galeriako pieza bat lapur zezaten, hain zuzen, Hugh Hefner Play Boy untxitxoetako baten gisa irudikatzen zuena. Harritzekoa bada ere, ez zuten erakusketa itxi irudikapen femeninoengatik, baizik eta irudikapen maskulinoengatik, besteak beste, Hefner-en beraren irudikapenengatik. Izan ere, irudikapen horiek emakumeen bezain hipersexualizatuta zeuden, alderantzikatutako begirada feminista berriari esker. Simetria bisual-sexual zorrotzeko ekintza bat izan zen, hauxe: emakumeekin erabiltzen diren irudikapen-parametro berberak aplikatzea gizonei.

### 02. ARETOA. SEXUAREN ETA KLASEAREN ARTEKO INTERSEKZIOAK, EMAKUMEEN LANA.

Sexu eta klase kategoriek interseksionalki jokatzeko dute, baina 70eko hamarkadako arte britainiarrean ia ez zuten erlazio hori landu. Margaret Harrison bereziki nabarmentzen da, ibilbidearen hasieratik erabili zuen begirada feministan klasea eta sexua erdigunean jarri zituelako. Interes horrek bultzatuta, 1972an, artisten sindikatuko emakumeen tailerra eratu zuen Kay Hunt eta Mary Kelly-rekin batera. Hor, soldata aldetik sexuen artean zegoen desparekotasuna lantzeaz gain, botereko karguak eskatu zituzten sindikatuan, eta, horren ondorioz, tradizioz gizonek bereganatutako jardueretan aritu ahal izan ziren lehenengo aldiz. Gero, hiru artistek azterketa bat egin zuten, Londresko Bermondsey-ko kontserba-fabrikari emakumeek egiten zuten lanari buruz; eta Women and Work: A Document on the Division of Labour in Industry 1973-1975 instalazioan aurkeztu zuten, South London Art Gallery-n 1975ean. Erakusketan, Harrison eta Hunt-ek emakume langileei egin zizkieten elkarrizketak bildu zituzten, emakumeek lanekin zuten erlazioari buruzkoak, eta horri hiru artistek zenbait artxibotan eta eurek behatuz lortu zuten fabrikari buruzko informazioa gaineratu zioten. Harrisonek ideia hori proiektatu zuen bakarka, bere hurrengo lanean -Homeworkers izenekoan (1977)-, hondoko irudi gisa. Lanari eta emakumei buruzko lan horretan, beren etxeetan ekoizten zuten emakume langileek zituzten zailtasunak ikertzen zituen, aurreko obran garatutako metodo berbera erabiliz. Enpresari britainiarrak berehala egokitu ziren onetsitako EPAra (Equal Pay Act), okerren ordaindutako zereginak gaueko txandara eramanda, lanak hondoratuz, eta emakume asko etxeetan lan egitera behatuz, fabrikara joatea ere zaildu baitzieten. Obra horrekin, Harrisonek sendoago finkatu zuen arte kontzeptual britainiarreko sektore batzuek zituzten tik elitistetatik bereizten zuten tarte, eta praxi artistiko materialistaren alde egin zuen apustua nabarmendu zuen.

### 03. ARETOA. INDARKERIA ETA ESPLOTAZIO SEXUALA

Lan-esplotazioari buruzko hausnarketarekin batera, Harrisonek pieza ikoniko batzuk sortu zituen, emakumeek izaten duten beste esplotazio-mota bati buruzkoak, hain zuzen, sexu-esplotazioari buruzkoak; eta, aldi berean, artistaren ibilbidean behin eta berriz azalduko den beste gaietako bat sartu zuen, hau da, indarkeria, zehazki, emakumeen kontrako indarkeria. Harrisonen ustez, emakumeen zapalkuntza eta esplotazioa sexu, klase eta arrazaren arteko sare konplexu baten emaitza da, eta indarkeriaren bidez egiten du aurrera. Haren iritziz, haren begirada feministatik, kategoria horien inguruan dauden mugek emakumeen kontra dagoen indarkeria sinboliko eta fisikoaren bidez irauten dute zutik. Anonymous was a woman lanean (1977/1992), artistak Virginia Woolf-en Gela bat norberarena lanean bildutako ideietako batekin egiten du jolas eta azken bi mendeetan kulturari egindako ekarpenarengandik nabarmendu diren zortzi emakume batzen ditu galeria batean. Haietatik sei modu bortitzean hil ziren, beren sexuari jarritako mugak ez errespetatzeagatik heriotza emanda, edo presio sozialari eta psikologikoari ezin eusteagatik hilda. Rape lanean (1978), Harrisonek emakumeen kontrako indarkeria-mota berezi bati heltzen dio: bortxaketari. Obrari, biktimen sentimenduak azaltzen dira, gizarteak eta instituzioek -probak gezurtaezinak izan arren- justizia egiteko erakusten duten bihozgabetasunaren aurrez aurre. Armen erretratuen bidez, bortxaketak gizartearen dituen sustrai sakonak nabarmentzen ditu, bortxa egiteko normalean erabili izan diren eguneroko objektuak baitira. Artelanak azpimarratzen du ideologia sexual hori arlo guztietan dagoela, eta erreproduzitu egiten dela, artearen historian ere bai. Craftwork proiektua (1980) emakumeen kontrako indarkeriaren eta haien esplotazio sexualaren artean kokatzen da; artistak deitoratu egiten du etxeoandreek zituzten jakintza kualifikatuak galtzea, ekoizpen industrialaren moldeek ondasunen ekoizpen osoa bereganatu ahala. 70eko hamarkadan, industriaren krisialdi larriak Erresuma Batuak astindu zituenean, langile-klaseko emakume askok kalean prostituitu behar izan zuten, eta tren hartu ohi zuten, beren auzoetatik urrutiratu eta etxera diru pixka batekin itzultzeko.

#### 04. ARETOA. IDAZKETA ERRADIKALA

Arte feminista 70eko hamarkadan Atlantikoaren bi aldeetan bat-batean sartu izanak arte-arloko establishment-aren erantzuna eragin zuen: haren eragina txikitzen ahailegindu zen. Politikoezia zela salatu zuen, eta une historiko jakin batera gehiegi atxikitzen zela ere bai. Erantzun horiekin batera, Harrisonek idazketa erradikala gorensten zuten artelanak egin zituen, nagusi ziren kontakizunei erantzuteko moduan. Hala, omenaldiak egin zizkien Mary Wollstonecraft, Dorothy Wordsworth era Rosa Luxemburg idazleei, besteak beste. Artelan horietan, zehatz berrikusten da pentsamendu feministaren jatorri ilustratua, beste pentsamendu kritiko batzuekin –hala nola sozialismoarekin– izan zituen harremanak, eta itxuraz neutroak diren nozioen dimentsio politikoak –adibidez, natura edo lurrarenak–.

Politics and the Beauty of Words lanean (1984), Harrisonek idazle erradikalak iraganetik berreskuratu zituen, eta haiekin soilik harreman intelektuala izan zuten gizonen ondoan erretratatu. Horrekin nabarmendu zuen ideiak ez dagozkiola subjektu bakar bati soilik, egilearen eta jainuaren kulturak hala dioen arren. Artistek eta idazleek ez dute ezer egiten bakarrik, subjektuen arteko harremanek bideratzen baitituzte, hain zuzen, sorkuntza eta aurrerakada intelektualak eta artistikoak. Gainera, artelanean iradokitzen da intelektualen arteko harreman horietan emakumeak ez direla izan beti bigarren plano batera alboratu dituztenak, edo feminismoa ez zela hutsune batetik sortu, baizik eta prozesu historiko, sozial eta kultural konplexu baten atal gisa. Bi artelan-talde biltzen dituen Singing Roses seriean (1985-2012), egileak omenaldia eskaintzen dio Rosa Luxemburg-i, eta feminismoaren eta sozialismoaren arteko intersektzioa jorratzen du, berariaz nabarmentzeko sexuen arteko berdintasunaren aldeko borroka ezin dela bereizi gizakien arteko berdintasunen aldeko borroketatik, eta alderantziz. Lehenengo artelan-taldea ukabila eta arrosa dituzten marrazkien hiruko batek osatzen du. Sozialismoaren simbolo horren inguruan testu bera ageri da hiruretan; eta lau ardatz ditu abiaburu: praktika artistiko erradikala, aktibismoa, sozialismoa eta teoria. Horiek osatzen dute artistaren metodo artistikoa sortzen duten elementuen eskema. Bigarren artelan-taldeak sozialismoa denari buruzko definizio estereotipatuak egiten die aurre, eta hainbat modu iradokitzen ditu hara hurbiltzeko. Taldea osatzen duten lau piezetan, Rosa Luxemburgen erretratuak eta testuak eta gaur egungo emakumeak agertzen dira batera, beste Rosa baten erretratuak, hain zuzen, artistaren alabarena, eta Jean McCrindle teoriko feminista britainiarren testu bat. Dorothy Wordsworth izen bereko idazle ingelesaren omenez egindako serie bat da (1982). Hor, Harrisonek azaltzen du lurra, lurraren jabetza, garrantzi goreneko kontu politikoa dela oraindik. Landareen margolanak, lurraren metafora bihurtuta, XIX. mendean Wordsworth-ek Ingalaterrako iparraldeko bere inguruan deskribatzeko idatzi zituen egunkarietatik ateratako testu-zatiekin batera ageri dira. Lurren jabetza kentzeko prozesuek eragindako pobrezia berria, Manchester eta Liverpooleko hiri industrial berrietan langileak izateko beharrekin batera mamitu zena. Land/Landscape: Australia/England seriean (1982), lurrari eta paisaiari buruzko gogoeta horiek zabaldu egin zituen, baieztatu baitzuen Erresuma Batuan herri-lurren jabetza kentzeko prozesuetan erabilitako teknikak Australiara eraman zituztela aginte kolonialaren garaian. Han, komunitate indigenetako kideek lur batekoa izateko kontzeptua beren iraupenarekin lotzen zuten, eta, haien iritziz, sarkin zuriek ez zuten lurra ezagutzen, eta horregatik ez zioten begirunerik. Komunitate aborigenek kontakizunak inposatzeko prozesuaren bidez ikasi zuten zer ziren jabetza pribatuaren eta lurraren jabe izatearen kontzeptuak, eta horren eraginez, beren lurak, historiak eta kultura galdu zituzten.

Artelan horietan, artistak historia nork idazten duen galdetzen dio bere buruari, geldi-geldi begiratzen die idazteko prozesuei eta boterearen hurbil izateagatik nagusi diren kontakizunei, xeheki aztertzen du natura eta lurra bezalako gai politikoen inguruan dagoen itxurazko neutraltasunaren eraikuntza, eta auzitan jartzen du artearen eta gizartearen paisaia-kontzeptua. Ikuspuntu itxoretatik, hezkuntza eta historia konbentzio hutsak dira, irudiak konbentzioak dira, begirada konbentzioa da. Alderaketa zabar bat eginez, esan dezakegu pintura horietan Harrisonek irudiaz egiten duela gogoeta, eraikin baten aurrealdea izango balitz bezala, bere burua trebetasunez aurkezten duen aldi berean, eraikinari eusten dion egitura ezkatatzeko gai dena. Hain zuzen, artelan horietan artistak eraikina ekartzen digu gogora, testuaren eta irudiaren artean finkatzen duen harremanaren bidez.

#### 05. ARETOA. GREENHAM COMMON

1981ean, emakumeen talde batek bere burua kateatu zuen Erresuma Batuko Greenham-eko lursail komunal batean dagoen Royal Air Force-ren base militarreko hesian, gobernu britainiarrak han misil nuklear estatubatuarrek jartzeko hartutako erabakiaren aurka protesta egiteko. Protestak bide eman zion emakumeen kanpamentu bat osatzeari: Greenham Common Womens Peace Camp. Aipatutako helburua lortzeko borroka egin zuten, eta, misilak 1991n erretiratu bazituzten ere, 2000. urtera arte jarraitu zuten, misil nuklearren Trident programa britainiarren aurka protestatuz. Margaret Harrison behin baino gehiagotan izan zen han: "hesia artelan bat zen ia bere horretan, jendeak pankartak, marrazkiak, pinturak zintzilikatzeko eta gauzak lotzeko erabiltzen zuten mihise baten modukoa". 1989an New Yorkeko New Museum-ek artista egonaldi bat egitera gonbidatu zuenean, kanpamentuari buruzko lana egitea erabaki zuen, AEBetan ezagutarazteko: "azken batean misilak bereak dira". Beste behin, aktibismoaren eta artearen arteko harremana aztertuz, kanpalekuaren historiari eta bizitzari buruzko artelaneen multzo bat osatu zuen, eta instalazio moduan aurkeztu zituen Bowery-ko museoan: "Aldi berean pertsonala eta politikoa izango zen hesien irudi-egunkari bat sortu nahi nuen". 2013an, instalazioa bigarren aldiz erakutsi zuenean, ispiluak erantsi zituen, 1983an basean gertatu zen ekintzari erreferentzia eginez. Orduan, milaka emakumek base osoa inguratu zuten, ispiluak hartuta, eta langile militarrei eskatu zieten egiten zutenari buruz "gogoeta egin" zezaten.

## 06. ARETOA. CLOTHES MAKE THE CHILD

“Jantziak janzen duena egiten du” esaerarekin itzul dezakegun serieko piezetan –alegia, “galtzek ez dute gizona egiten”–, paisaiarekin jartzen du harremanetan sexu, genero eta sexu aginduen arabera argi eta garbi egindako soinekoak edo arropa, biak ala biak zeinua edo eraikuntza kulturalak direla azpimarratzeko, eta haiei eusten dien narratiba “naturala” deseraikitzeke. Nola eraikitzen da paisaia? Bertan bizi direnek zergatik egiten dute egiten duten moduan? Horiek dira Ellen’s dress lanean (1993) egiten dituen galderetako batzuk. Pintura horretan, artistak testuinguru zabalagoan kokatzen ditu emakumeen esperientziak, hain zuzen, testuinguru globalean; eta simil bat egiten du ondasunen ekoizpen eta zirkulazioaren eta sexu, genero eta sexu aginduen artean. Ellen’s dress artelanean, soineko baten historia kontatzen du. Harrisonek Cumbrian erosi zuen, margolanean Ellenek darama soinean, eta haren inguruan idatzita dauden inguru geografikoen zerrandaren bidez fabrikatzen eta saltzen da.

## 08. ARETOA. MARILYN

Mundu osoan ospetsuak diren Hollywoodeko aktore izarren epitomea den Marilyn Monroeri buruz egindako pintura-seriean, pop arteari eta kulturari begira jarri zen berriro Harrison, ikuspuntu feminista kritikoarekin. Gogoeta egitea proposatu zuen, arteak narrazio hegemonikoak eraikitzeke duen tradiziozko eginkizunari buruz, eta aparatu ideologikoen beste diskurtso-nodo batzuekin –esaterako, Hollywoodeko propaganda-makinariarekin– duen harremanari buruz. Marilyn serieak pop artearen atzealde bat eraikitzen du, estilo horrek berezko dituen gaiak eta irudikatzeke teknikei eutsita. Serieari eskainitako aretoan, hiru eratako irudiak daude elkarri kontrajarrita. Lehenengoan, Marilyn gaztea ageri da hondartzan: jende arruntak irteeretan eta aisialdian ateratzen dituen argazkiei egiten die erreferentzia, ohiko irudia da. Bigarrena Marilynen lehen plano oso hurbilekoa da, Hollywoodeko “star system-eko” irudiaren teknologia sofistikatuaren emaitza, irudi ikonikoa. Eta hirugarrena prentsan argitaratu zen aktore hilaren irudi bakarra, irudi ahaztua. Hiru irudien arteko elkarriketak irudikapen, kontaketa eta errealtatearen kontzeptuen arteko harremana jorratzen du. Harrisonen ikuspuntu materialistak formaren eta edukiaren arteko harremanaren dimentsio bereziki sakonak proiektatzen ditu Marilyn Monroeren kasuan (beste pertsonaia-produktu mediatiko batzuekin aplikagarriak), Hollywoodeko kontakizuna eta hori irudikatzen duen pertsona ezin baitira berezi.

## 09. ARETOA. IDENTITATEAREN ESENTZIA

Artelan-serie hau sortzeko, artistak lotura bat finkatzen du honako bi gairen artean: batetik, Édouard Manet-en A Bar of the Folies Bergere pintura (1881–82) eta, bestetik, ikuslearen gozameneko emakumeak lanean ikusgai dituzten erakusketak garaikideen adibide batzuk –zehazki, saltoki handietako kosmetika-sailetan saltzaille-lanetan ari diren emakumeak. Akuarelek salatu egiten dute emakumeak merkantilizatzeko dagoen aparatu bisual-ideologikoa, emakumeak gizonen zerbitzura daudela dioen ideia sustatzea, zerbitzurako femininotasun bat, kontsumo-objektu ere badena, maiz oharkabean igarota kontsumo-tenpluetako propaganda eta desira sortzeko makineria zapaltzailan eta haren liturgietan. Makineria horrek ezin hobeto taxutzen du ikuslearen arreta lortzeko emakumeak “erakusmahaiaren” atzean jartzen dituzten espazioen dotorezia eta erakargarritasuna. Salgaiek modernotasunaren promesak eta mirariak eskaintzen dituzte; eta emakume saltzailleak produktua edo marka irudikatzeke kontratatu, eta salmenta-gunean aurkezten dituzte. Sarritan, Manet-en pinturan bezala, akuareletan, begirada markotik kanpora zuzentzen da, eta, aldi berean, asmoa agertzen du kosmetikaren eta merkataritzaren, eta kosmetikaren eta identitatearen arteko lotuneei buruz gogoeta egiteko. Pinturak espazioan aurkezteko modu limurtzailleak, markoarekin, pareta margotuekin eta arretaz zaindutako argiztapenarekin, begiratzearen esperientziak gogoeta egitera eramaten gaitu, bai eta emakumeak plazera lortzeko objektu bihurtzen dituzten prozesuen barruko kontrasteak aztertzea ere.

## 10. ARETOA. BEAUTIFUL UGLY VIOLENCE

Indarkeria, zehazki, emakumeen aurkako indarkeria, Margaret Harrisonen lanetan behin eta berri errepikatzen diren gaietako bat da. Serie honetan azpimarratu egiten du, berak jasotzen duenaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria ez dela indarkeria-mota isolatu bat, gizarteko sektore askok bestela uste duten arren. Aitzitik, haren iritzi, patriarkatuak berezkoa duen elementua da, bortxazko sistema globala baita patriarkatua. Horixe egiaztatzen dute emakumeen kontrako indarkeria-moten artean dauden harremanek, mundu osoko hainbat bazterretan edo artelanetan jorratzen diren esparru publiko eta pribatu askotan. Artelanetan ageri den serieari buruzko dokumentazio-prozesuan, Harrisonek uko egin zien azalpen estereotipatuei eta biktimaren kontzeptuan ardatzutako eztabaida feminista sinplikatzaileegi batzuei; eta harremanetan jarri zen San Francisco inguruan espetxeetako presoekin lan egiten zuen emakume agente batekin. Artistak eskatu zion agenteari emakumeen aurkako indarkeria-delituak egindako presoak hauta zitzen, eta galderak txerta zitzen haiei aldi behin egiten zizkien elkarriketatik, krimenak zergatik egin zituzten jakiteko. Beautiful Ugly Violence “indarkeria-eder-itsusia” teknika mistoko collagez eta olio-pinturez eta akuarelaz osatuta dago. Haietan, Harrisonek sakon aztertzen ditu oraingo patriarkatuak emakumeen aurkako indarkeria edertzeko darabiltzan hainbat estrategia, eta salatzen du estetika nahita erabiltzen dela zitala denarekin irudi iradokitzaileak edo “ederrak” sortzeko. Serieko natural hil soilak estrategikoki osatu dira, hain zuzen, emakumeen aurkako indarkeriaren gaia era desberdin batean jorratu ahal izateko. Izan ere, artistak berak esana duenez: “irudi gehiegi jaurtitzeak ahitu egiten digu gupida; beraz, gauza zehatzak erabili nituen, gorputzen orde, objektuak izan zitezten begiraden arretagune (...) pinturaren edertasunaren bidez, zorrotzago adieraz baitaiteke izugarrikeria”.

## 11. ARETOA. GORPUTZAK ITZULI DIRA

1970eko hamarkadaren hasieran, gayen eta lesbianen mugimenduak ez zuen artean atxiki sexu, genero eta sexualitate kategorien izaera kulturala, zientzialari sozial feministek postulatuakoa, baina, 1980ko hamarkadaren amaieratik aurrera, queer eszena garatzeaz batera, egoera aldatzen hasi zen. 2010an, *The Bodies Are Back* erakusketarekin, artistak berriz heldu ziren 1971n egin zuen erakusketako strategiari eta ikonografiari, eta harrera beroa izan zuen Castrok galerian, San Frantziskoko auzo gay mitikoan. Orduan, testuinguru feminista eta LGBTQ berriek berehala antzeman zituzten ikonografia horren ertz desberdinak, eta "begirada alderantzikatua" hauteman zuten, ez bakarrik salatzeke ekintza gisa, errebelatzeko mekanismo gisa ere bai. "Gizon-maskulino-heterosexual" eta "emakume-femenino-heterosexual" egokitzapena naturalizatzen duten estereotipoen hierarkia salatzeaz eta haren zorrozatasuna adierazteaz gain, seriea identitate-aukeren sorta zabal konplexuan barneratzen da, eta sexu, genero, sexualitate, klase eta arrazaren artean izan daitezkeen elkarguneak zehazten ditu. Handik 39 urtera, artistaren orduko "begirada alderantzikatua" nola funtzionatzen zuen berriz aztertzean, Harrisonek elementu berri bat sartzen du serie berrian -ispiluak-, eta aldi berri bati ekiten dio begiradaz hausnartzeko, aparatu ideologikoa den aldetik. Prozesu horretan, artistak pop ikonoei egindako kritika kulturala hedatzen du, pinturako maisu deitutakoei eta artista garaikideei ere aplikatzeko.

## 12. ARETOA. BEGIRADA FEMINISTA

Diskurtso feministek behin eta berriz erabili izan dituzte ispiluak, sarritan begiradaren gaiari erreferentzia egiteko. Konparaziora, 1929. urtean, honela idatzi zuen Virginia Woolf-ek: "Joan diren mende hauetan guztietan, ispiluen zerbitzua egin dute emakumeek, haien ahalmen magiko eta zoragarriarekin, gizonaren irudia islatu dute haren tamaina bikoiztuz". Margaret Harrisonek maiz erabili izan ditu ispiluak, bai haiek irudikatuz, bai eta objektu fisiko moduan ere, eta irudi berean plano desberdinak erabiltzeko baliabidea ere hartu du, begirada lineala eteteko eta islatu-hausnartu eta ikusi-pentsatu dualismoekin jolasteko. Beharbada, *The Last Gaze* da haren ispilu-pieza-rik ezagunena (2013). Artelana *Lady of Shalott*-en istorioa kontatzen duen Tennyson-en poema batean oinarrituta dago: *Shalott*-eko andreari ispiluetan islatuta baizik ez diote uzten mundua ikusten, hau da, besteen begien bidez. Eta, mundua bere kabuz ikusteko debekuari men ez egiteagatik, hil egingo da. Begirada erdiguneko gaia da feminismoan, eta hura desnaturalizatzea da feministen helburuetako bat. Halaxe izan da, 1970eko urteetan ordena patriarkala betiketazera bideratutako sistema sozio-sexual batean txertatutako eraikuntza kultural maskulinoztat jo zutenetik. Sexuen arteko asimetria hautematen duen begirada gauzatuz ekin zion ibilbide horri Margaret Harrisonek, eta, hortik, sexua-generoa-sexualitatea hirukoaren ikurrak alderantziz jartzea proposatu zuen, zuzentzen dituen hierarkia azaleratzeko. Haren "begirada alderantzikatua" hedatu egin zen, zabaleran eta sakoneran, artista hiruko horrekin gurutzatzen diren kategorietan gelditu zen neurrian. Begirada hori gai da ikusi ezin dena bistartzeko, emakumeak Historiatik ezabatu dituzten baztertutako planoak erakusteko, eta, gainera, begiratzeko ekintzaren beraren jatorri soziopolitikoa azaleratzeko.